

# EHPK: «Euskadiko Federazioak trabatu du Euskal Herriko ordezkarien parte-hartzea»

Munduko Pilota Batzarrak irailen erabakiko du pilota koordinakundea onartuko duen ala ez

I. MAGRO  
Donostia

Euskal Herriko Pilota Konfederazioak atzo erantzun zion Munduko Pilota Batzarraren eskutik jasotako ukoari. Pilota Konfederazioko ordezkariak gogor mintzatu ziren, eta «oso larritzat» jo zuten Euskal Herriaren izenean lehia daitekeen erakunde bakarra Munduko Pilota Txapelketatik kanpo utzi izana. Era berean, euren eskaera defendatzeko hainbat ekintza antolatuko dituztela azaldu zuten, eta irailen Munduko Pilota Batzarrak San Frantziskon egingo duen biltzarrean egongo direla aurreratu (AEB). Biltzar horretan Munduko Pilota Batzarrak EHPK kide gisa onartzen duen eztabaiatuko du.

Martin Ibarra, EHPK-ko ordezkaria, larrituta mintzatu zen, bere iritziz arazoa iraileko txapelketatik haratago baitoa. «Euskadiko Federazioak trabatu du Euskal Herriko ordezkarien parte-hartzea. Txapelketan lotsagarri geldituko dira, Euskal Herriari ezetz esan diotelako». Euskadiko Federazioak Euskal Herriaren izenean jokatu du Munduko Txapelketan, eta Ibarrak jarrera hori iruzurtzat jo zuen. «EAEko eta Nafarroako pilotariak ariko dira, eta Euskal Herriaren armarrria eraman dezakete elastikoan, baina horrek ez du esan nahi Euskal Herriaren izenean ariko direnik».

EHPK-ko ordezkariak onartu zuen Batzarrak parte hartzeko aukera eman ziela, baina baldintza

«onartezin» batzuekin. Ibarraren arabera, Batzarrak jokamolde bateko bikote bat baino ez eramatea eskaini zion, Euskadiren izenean aritzea, eta Batzarraren sartzeko eskaera atzera botatzea.

EHPK-k ez zuen onartu, eta Batzarraren sartzeko eskaera indarrean dirau. Batzarrak irailen San Frantziskon txapelketarekin bat egingo duen biltzarrean erabakiko du EHPK onartzen duten ala ez. EHPK-ko ordezkariak biltzarrean joango dira, eta bilera bertatik bertara jarraitzen saiatuko dira. Biltzarrean aurretik Batzarrareko kide diren federazioekin biltzeko asmoa dute, konfederazioaren lanaren berri emateko.

EHPK-k Batzarraren onartu beharko luketela uste du, Ibarrak azaldu zuenez bi erakundeek hel-

buru berdina dutelako. «EHPK-k Batzarraren partaide izateko behar diren baldintza guztiak betetzen ditu. Batzarraren xedea pilota sustatzea da, baita gurea ere. Gure egitura, gainera, ez da oztopo, Batzarraren estatutuetan tankera desberdinetako erakunde publiko zein pribatuak parte har dezaketela zehazten baita».

**BATZARRA, ADOSTASUNAREN ALDE.** Karlos Lasak, Munduko Pilota Batzarrareko presidentea, EHPKri Batzarraren sartzeko eskaera atzera botatzeko eskatu izana gezurdatu du. Era berean, Koordinakundea Batzarraren sar daitekeela onartu du, eta hala ez balitz estatutuak ere alda daitezkeela. Lasaren iritziz, arazoa Euskadiko Federazioaren eta EHPKren artean dago, eta Ba-

tzarra bitartekari lanak egiteko prest dago. «EHPKri esan diogu abendura begira euren eta federazioaren arteko bitartekari lanak egiteko prest gaudela. Pilotan batera egin behar dugu lan Euskal Herriak ordezkari izatea lor dezan. Ezin gara beti gure artean liskarrean ibili».

Munduko Txapelketan parte-hartzeko ezezkoa, berriz, denbora faltari zor zaiola esan du Lasak. «Arazoa aurretik konpondu behar zen. Ezinezkoa da txapelketa jokatu baino hilabete eta erdi lehenago etortzea parte hartu nahi duzula eskatuz. Era berean, ulertezina da Euskadi eta Euskal Herriak banatuta jokatzea, liskarrak beste kideak izutu ditzake. Batzarraren asmoa arazoa konpontzea da, baina hori hilabete bakarrean ezezkoa da».



Ezker-eskuin, Toledo eta Arratibel ESAITEKOAK, Santxo ESAITEKO abokatu eta Ibarra EHPK-ko lehendakaria. L. JAUREGALIZO / ARP

## Ezkurak Kurasaaleko finalera itzultzeko aukera du gaur, Urrutiari irabazita

Saldiaskoari sendatu zaio orkatila, eta presiorik gabe jokatu du ligaxkako bere aurreneko partida

I. MAGRO  
Donostia

Kotete Ezkurra gabeko finala ez zela benetako finala zioten iaz Galarretakoz hainbat zalek. Doneztebekoak ez zuen Kurasaal torneoaren parte hartzerik izan, eta Zeberioi eta Urrutiari izan zuten txapela jo-

koan. Bi urte geroago, Ezkurak berriz ere buruz buruko finalean sartzeko aukera izango du gaur. Horretarako, Urrutiari irabazi beharko dio. Aldiz, galduz gero, Zeberio II.ak eta Urrutiari etzi jokatuko duten partidaren emaitzari itxaron beharko lioke.

Ezkurak aukera hutsa baino gehiago du, artekariek bera joko baitute faborito. Larunbatean poliki jokatuta irabazi zion Zeberiori, eta egon zitezkeen zalantza apurrik uxatu zituen. Urrutiari ere partida bat jokatu du, final-laurdinetan, eta Juaristiri nagusitasu-



Kotete Ezkurra. IMANOL OTEGA / ARCAZKO PRESS

nez irabazi zion (35-23). Partida hartan Saldiaskoak orkatilako minnez bukatu zuen. Zorionez, sendatu da, eta gaur sasoi betearen jokatuko du.

Urrutia eta Ezkurra egoera bixian daude. Ezkurak iaz ez zuen jokatzetik izan, eta halere zuzenean sartu dute finalerdietan. Urrutia, aldiz, txapeladunorde izan zen, eta partida bat irabazi behar izan du finalerdietan sartzeko. Biek behin neurtu dituzte indarrak buruz buru pilotaleku luzean, duela bi urteko Insalus Masterseko finalean izan zen, eta Ezkurak kostata irabazi zuen (35-31). Partida gogorra izan zen, eta Urrutia aurretik iritsi zen azken txanpara (30-31). Galarretan bi estiloren arteko lehia ikusiko da; Ezkurrearen zango azkarrak eta trebezia, Urrutiaren sakearen eta kolpearen aurka.

## Bengoetxea VI.a eta Barriola batera ariko dira gaur, Donostiako ferian

I. MAGRO  
Donostia

Donostiako feria gaur hasiko da (22:15, ETB1), eta jaialdiko estelarra torneooko partida izango da. Iaz, pilotalekuko lanen erruz, ez zen feriarik egon Donostian; aurren, berriz, pilota enpresek jaialdi erakargarriak antolatu dituzte. Gaurkoak bitxikeria du, gainera, Aspe eta Asegarceko pilotari bana batera ariko baitira. Bengoetxea VI.ak eta Barriolak Olaizola I.a eta Ruiz izango dituzte kontrario torneooko final-laurdinetan. Irabazleek Xala-Gofi III.aren aurka jokatuko dute finalerdietan.

Bengoetxeak eta Barriolak batera jokatuko duten bigarren aldia izango da. Aurrekoa 2002an izan zen, eta galdutako izan zuten, hala gogoratzen du behintzat Bengoetxeak. Biak herri berekoak izan arren, enpresen arteko harresiak ez die batera jokatzen utzi. Gaur lan zaila izango dute elkarrekin konpontzen, ez baitute entrenamendu bakar bat ere egin batera. Biak ere ez dira kolpe izugarriko pilotariak, eta jokoa aurrean nahastu saiatu beharko dira irabazteko. Parean, Olaizola I.a eta Ruiz sasoi betearen daude. Zarauzko Torneoan irabazi berri dute batera, eta eurak izango dira faborito artekarientzat.

Donostiako ez da eguneko jaialdi bakarra izango, Aspeke beste bat antolatu baitu Mendabian (Nafarroa, 18:00). Partida nagusian Titin III.ak eta Galarza VI.ak batera jokatuko dute berriz, Gonzalez eta Lasa III.aren aurka.

### ■ JAIALDIK

#### Astearteko emaitzak

■ **Donibane Lohizune.** Goikoetxea-Felix 2; Alberdi II.a-Elizegi 0 (15-12, 15-14).

#### Gaurko partidak

- **Donostia (22:15, ETB1).** Del Ray-Arizmendi / Diaz-Eskudero. Olaizola I.a-Ruiz / Bengoetxea VI.a-Barriola. Capellan-Zubieta / Leiza-Zearra.
- **Mendabia (18:00).** Apeztexea-Apeztegia / Olazabal-Elkoro. Titin III.a-Galarza VI.a / Gonzalez-Lasa III.a.
- **Regumiel (18:00).** Larralde-Arruti / Uriarte-Urberuaga.
- **Garde (18:00).** Esain-Apraiz / Arbizu-Oteiza.
- **Kanbo (21:00).** Waltary-Maite / Bielle-Ezkurra II.a.
- **Galarreta (16:00).** Sarasua-Olazar / Iribarren-Ion. Ezkurra / Urrutia. Zeberio II.a-San Miguel / Altuna II.a-Etxeberria III.a. Altuna I.a-Lekunberri / Bitoria-Iriarte.
- **Bilbo (17:00).** Iriondo-Eslava / Zarraga-Galan. Fusto-Garma / Urkijo-Imanol. Beaskoetxea-Iratorza / Alberdi II.a-Elizegi.
- **Hondarribia (19:00).** Konpa-Lopez / Erkiaga-Arriaga.